

# **HERRI ADMINISTRAZIOETAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO VI. PLANGINTZALDIAREN EBALUAZIOA**

**Adierazle taula kalkulatzeko  
aplikazioaren tutoriala**

Donostia, 2022ko maiatza

## Aurkibidea

Ezaugarri teknikoak .....	3
Aplikazioaren tutoriala	
Hasierako orrialdea .....	4
Formularioak	
Erakundeak .....	5
Langileak .....	5
Adierazle taulak	
Pantailan ikusi .....	6
Inprimatu .....	6
Iragazki galderak .....	7
Galdetegiak	
Herri administrazioko langileei zuzendutako galdetegia	
Herri administrazioko erakundearen galdetegia	



## Ezaugarri teknikoak

Tutorial honekin batera bi fitxategi jasoko dituzu:

- “VI plan ebaluazioa aplikazioa.accdb”
  - Microsoft Accessen irekitzeko.
  
- “Access Runtime.exe”
  - Microsoft Office instalatu gabe duten ordenagailuetan, lehenik exekutagarri hau instalatu behar da eta ondoren “VI plan ebaluazioa aplikazioa.accdb” ireki.




## Aplikazioaren tutoriala

### Hasierako orrialdea

Hasierako orrialdea izango da aplikazioko menu nagusia. Bertan aukera guztiak ikus daitezke:

- Datu berriak sartzeko formularioetara sartzeko botoiak: Erakundeak eta Langileak
- Adierazle taulak: Adierazle taulak ageri dira gaiaren arabera sailkatuak
- Datuak eguneratu botoia: Adierazle taulak erabili aurretik klikatu botoi hau
- Iratzki galderen orria: adierazle tauletan iratzkiak jartzeko aukera ematen duen orrialdea
- Irteteko botoia: Aplikaziotik irtengo da hau klikatzen dugunean



## Formularioak

### Erakundeak




Erakundea botoia klikatzen dugunean, erakundearen datuak grabatzeko aukera eskainiko digun formularioa zabalduko zaigu. Formulario horretan, inkesta jarraituz, datuak grabatuko ditugu. Galdesortan galdera bakoitzak duen kodearekin bat dator formularioan eremu bakoitzak duen izena. (G1\_1...).

VI. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluazioa: Solaskideen galdetegi

Erakundea	G1_4_Gazt	G1_4_B	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_1	G1_2_4
Erakunde1	G1_4_2_Eusk	G1_4_3_Eusk	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_2	G1_2_3
G1_1_Gazt	G1_4_6_Eusk	G1_4_7_Eusk	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_4	G1_2_5
G1_1_B	G1_4_8	G1_4_9	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_6	G1_2_7
G1_2_Gazt	G1_4_10	G1_4_11	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_8	G1_2_9
G1_2_B	G1_4_12	G1_4_13	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_10	G1_2_11
G1_3_Gazt	G1_4_14	G1_4_15	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_12	G1_2_13
G1_3_B	G1_4_16	G1_4_17	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_14	G1_2_15
G1_4_Gazt	G1_4_18	G1_4_19	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_16	G1_2_17
G1_4_B	G1_4_20	G1_4_21	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_18	G1_2_19
G1_5_Gazt	G1_4_22	G1_4_23	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_20	G1_2_21
G1_5_B	G1_4_24	G1_4_25	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_22	G1_2_23
G1_6_Gazt	G1_4_26	G1_4_27	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_24	G1_2_25
G1_6_B	G1_4_28	G1_4_29	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_26	G1_2_27
G1_7_Gazt	G1_4_30	G1_4_31	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_28	G1_2_29
G1_7_B	G1_4_32	G1_4_33	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_30	G1_2_31
G1_8_Gazt	G1_4_34	G1_4_35	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_32	G1_2_33
G1_8_B	G1_4_36	G1_4_37	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_34	G1_2_35
G1_9_Gazt	G1_4_38	G1_4_39	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_36	G1_2_37
G1_9_B	G1_4_40	G1_4_41	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_38	G1_2_39
G1_10_Gazt	G1_4_42	G1_4_43	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_40	G1_2_41
G1_10_B	G1_4_44	G1_4_45	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_42	G1_2_43
G1_11_Gazt	G1_4_46	G1_4_47	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_44	G1_2_45
G1_11_B	G1_4_48	G1_4_49	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_46	G1_2_47
G1_12_Gazt	G1_4_50	G1_4_51	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_48	G1_2_49
G1_12_B	G1_4_52	G1_4_53	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_50	G1_2_51
G1_13_Gazt	G1_4_54	G1_4_55	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_52	G1_2_53
G1_13_B	G1_4_56	G1_4_57	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_54	G1_2_55
G1_14_Gazt	G1_4_58	G1_4_59	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_56	G1_2_57
G1_14_B	G1_4_60	G1_4_61	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_58	G1_2_59
G1_15_Gazt	G1_4_62	G1_4_63	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_60	G1_2_61
G1_15_B	G1_4_64	G1_4_65	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_62	G1_2_63
G1_16_Gazt	G1_4_66	G1_4_67	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_64	G1_2_65
G1_16_B	G1_4_68	G1_4_69	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_66	G1_2_67
G1_17_Gazt	G1_4_70	G1_4_71	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_68	G1_2_69
G1_17_B	G1_4_72	G1_4_73	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_70	G1_2_71
G1_18_Gazt	G1_4_74	G1_4_75	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_72	G1_2_73
G1_18_B	G1_4_76	G1_4_77	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_74	G1_2_75
G1_19_Gazt	G1_4_78	G1_4_79	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_76	G1_2_77
G1_19_B	G1_4_80	G1_4_81	G1_1_Gazt	G1_1_B	G1_2_78	G1_2_79

### Langileak



Langileak botoia klikatzen dugunean, langileen datuak grabatzeko aukera eskainiko digun formularioa zabalduko zaigu. Formulario honetan ere, inkesta jarraituz, datuak grabatuko ditugu. Galdesortan galdera bakoitzak duen kodearekin bat dator formularioan eremu bakoitzak duen izena. (G1\_1...).

VI. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluazioa: Langileen galdetegi

Erakundea	G1_1	G6_1	G10_1	G14_4
Erakunde1	G1_2	G6_2	G10_2	G14_1
Kodea	G1_3	G6_3	G10_3	G14_2
G1_1	G1_4	G7_1	G11_2_Gazt	G15_3_Ulertu
G1_2_Gazt	G1_5	G7_2	G11_2_Eusk	G15_3_Mitza_egin
G1_2_B	G1_6	G8_1	G11_2_Biak	G15_3_Trakurri
G1_3_Gazt	G1_7	G8_2	G11_3	G15_3_Idatzi
G1_3_B	G1_8	G9_1	G11_4	G15_4_Atala
G1_4_Gazt	G1_9_Besterik	G9_2_gazt	G12_1	G15_5_Lanpostua
G1_4_B		G9_2_eusk	G12_2_Gazt	
G2_1	G5_1	G9_2_biak	G12_2_Eusk	
G2_2	G5_2_Gazt	G9_3	G12_2_Biak	G18_6
G2_3	G5_2_Eusk	G9_4	G13_1	G18_7
G2_4	G5_2_Biak	G10_1	G13_2	G18_8
G2_5	G5_3	G10_2_Gazt	G13_3	
G2_6	G5_4_Gazt	G10_2_Eusk	G14_1	
G2_7	G5_4_Eusk	G10_2_Biak	G14_2	
	G2_4_Biak		G14_3_Besterik	

Langileen datuak sartzerakoan, garrantzitsua da honakoak kontuan hartzea:

- ▀ Grabatuko den langile bakoitzari kode bat jarri behar zaio, eta bakoitzari berea. Ezinbestekoa da eremu hori betetzea, eta kode horiek ezin daitezke erreplikatu.
- ▀ Langileak erantzun beharreko galdera guztiak, erantzunda behar dute. Hau da, ezin daiteke erantzun beharreko galdera bat hutsik utzi.

## Adierazle taulak


Pantailan ikusi

Behin galdesortak grabatuta, bai erakundeari dagokiona, baita langileei dagokiena ere, Adierazle taulak kontsulta daitezke. Horretarako, lehenik, klikatu “Datuak eguneratu” botoian, aplikazioak datuak erabilgarri jarri ditzan.

Bi modu daude Adierazle taulak kontsultatzeko: pantailan bertan ikusi, ala zuzenean inprimatu.

Adierazle taula pantailan ikusteko, honako atal hauetakoren baten gainean klikatu:

1. Erakundearen irudia
2. Bezeroekiko (Pertsona fisikoak) edo herritarrekiko harremanak
3. Barne komunikazio eta lan tresnak
4. Pertsonen kudeaketa
5. Kanpo harremanak
6. Erakundearen hizkuntza kudeaketa



Inprimatu

Inprimatu nahi izanez gero, Adierazle taula bakoitzaren eskuinean dagoen inprimatu botoiaren gainean klikatu behar duzu.




## Iragazki galderak

Kasuren batean, gerta daiteke Adierazleak sail edo baldintza jakin bat betetzen duten langileekin soilik kalkulatu nahi izatea.

Horretarako, orri honetan, datuak iragazteko aukera emango diguten 5 aldagaiak ageri dira.

Datuak aldagai horietako baten edo gehiagoren arabera iragaz daitezke; eta horretaz gain, hautatutako aldagai bakoitzaren barnean ere balio bat edo gehiago har daiteke iragazkia egiteko.



Honakoak dira datuak filtratzeko aukera eskainiko duten aldagaiak:

- Atala (G15\_4)
- Langilearen sexua (G15\_6)
- Egiaztatutako Hizkuntza Eskakizuna (G15\_2)
- Euskaraz hitz egiteko gaitasuna (G15\_3\_Hitz egin)
- Idazteko gaitasuna (G15\_3\_Idatzi)


Horietako aldagai bakoitzean azalduko diren aukerak bat etorriko dira grabatutako inkestetan eremuak dituen aukerekin.

Datuak iragazi edo filtratzeko, hautatutako aldagaiari dagokion balioaren gainean klikatu (esan bezala, balio bakarra hauta dezakegu, ala bat baino gehiago) eta ondoren Iragazkiak Aktibatu botoian klikatuko dugu.

Aukeratuetakoren bat aldatu nahi badugu berriz klikatzea besterik ez dugu.

Behin Iragazkia aktibatuta, berriro Hasierako orrira itzuli behar dugu, bertan ikusi edo inprimatu nahi dugun Adierazle taula aukeratzeko.

➔ *Ikusi "Aldagaien taula" puntua*



Datu guztiei dagozkien Adierazle taulak berriro kontsultatzeko, Iragazkien orrira joan eta bertan hautatuta dauden balioetan klik eginez, iragazkiak desaktibatuko ditugu.

## Galdetegiak





# **Euskararen erabileraren normalizazioa herri erakundeetan**

## **VI. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluazioa 2022**

### **ERAKUNDEAREN SOLASKIDEEI ZUZENDUTAKO GALDETEGIA**

#### **Aurkezpena**

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak arautua du Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua. Dekretu horren arabera, euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu, gauzatu eta ebaluatu behar du entitate bakoitzak.

2022. urtean, VI. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluazioa egitea dagokie.

Ebaluazioa bera egiteko metodologiari dagokionez, V. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluazioan egin bezala, bi datu iturri erabiliko dira: batetik, erakunde bakoitzean euskara planaren arduraren duten teknikari edo ordezkariak erakunde mailako informazioa emango dute; bestetik, herri administrazioetako langileek, zuzenean, ohiko ahozko eta idatzizko hizkuntza praktikari buruzkoa. Metodologia honek bide emango du emaitzak V. Plangintzaldiko Amaierako Ebaluaziokoekin alderatzeko.

Esku artean duzun galdetegia, erakundearen solaskideei zuzendutakoa da, eta bertan, Plangintzaldiko Ebaluazioa egiteko, erakunde mailako adierazleak biltzeko informazioa jasotzen da.



## 1. ERAKUNDEAREN IRUDIA

### 1.1. Eraikinetako errotulazio orokorra

**Euskarri motak.** Eraikinetan, barruan nahiz kanpoan, dauden errotulazioak hartu behar dira kontuan: herritarren joan-etorri handieneko espazioetan dauden seinale, errothulu eta informazio euskarri orokorrak. Ohikoenak hauek dira: toki edota zerbitzuen identifikazio seinaleak, norabide seinaleak, igogailuetako ahots mezu automatikoak, eta herritarrei informazioa emateko panel elektronikoak. Informazioa eskuratzeko zailtasunagatik, ez dira neurtuko aldi baterako edo modu probisionalean jarrita egon daitezkeen elementuak, ezta eraikinetako kafe makina, fotokopiagailu eta bestelako tresnerietan irakur daitekeena ere.

**Hizkuntza ofizialen egoeraren ehunekoak kalkulatzeko prozedura.** Adierazi beharko dira errotulazio orokorreko elementuen hizkuntza ofizialen egoeraren ehunekoak; hau da, gaztelania hutsean (ez dago euskarazko bertsiorik), euskara hutsean (ez dago gaztelaniazko bertsiorik), edo ele bietan (euskarri berean ele bietan edo bereizita bi bertsiotan, euskaraz eta gaztelaniaz) daudenen ehunekoak.

#### 1.1. Eraikinetako errotulazio orokorraren hizkuntza ofizialen egoera:

Gaztelania hutsean (%):

Euskara hutsean (%):

Ele bietan (%):

GUZTIRA (%):

### 1.2. Erakundearen irudi korporatiboko elementuak

**Euskarri motak.** Gutun azalak, orri buruak, zigiluak, bisita txartelak eta erakundeak erabiltzen dituen irudi korporatiboko bestelako euskarri eta papertegiko elementuak.

**Hizkuntza ofizialen egoeraren ehunekoak kalkulatzeko prozedura.** Adierazi beharko dira irudi korporatiboko elementuen hizkuntza ofizialen egoeraren ehunekoak; hau da, gaztelania hutsean (ez dago euskarazko bertsiorik), euskara hutsean (ez dago gaztelaniazko bertsiorik), edo ele bietan (euskarri berean ele bietan edo bereizita bi bertsiotan, euskaraz eta gaztelaniaz) daudenen ehunekoak.

#### 1.2. Erakundearen irudi korporatiboko elementuen hizkuntza ofizialen egoera:

Gaztelania hutsean (%):

Euskara hutsean (%):

Ele bietan (%):

GUZTIRA (%):



### 1.3. Erakundearen beraren paperezko argitalpenak

**Euskarri motak.** Herritar guztiengana edo publiko ahalik eta zabalenera iristeko helburuarekin erakundeak berak kaleratzen dituen paperezko argitalpenak: udal aldizkariak, egitarauak, agendak, informazio orriak, memoriak, liburuak, eta abar.

**Hizkuntza ofizialen egoeraren ehunekoak kalkulatzeko prozedura.** Zabalpen handiko argitalpen ofizialak izan arren, erakunde berean asko alda daiteke paperezko produktu horien trataera linguistikoa zerbitzu batetik bestera edo idatzizko produktu batetik bestera. Egoera horrek asko zailtzen duenez erakunde osorako hizkuntza ofizialen egoeraren datu bat kalkulatzeko prozedura, proposatzen da **bost bat argitalpenetara** mugatzea neurketa, honako jarraibide hauei segituta:

1. Zabalpen handienekoak: herritar guztiei zabaldutakoak, edota erabilpen handia duten zerbitzuetako erabiltzaileei.
2. Erakundeak maiztasun handiarekin kaleratzen dituen argitalpenak.
3. Zabalpen maila eta maiztasuna kontuan izanda, erakundearen papereko bost argitalpen garrantzitsuenak zerrendatu behar dira. Kanpo komunikazioaz arduratzen den berariazko komunikazio arlo edo zerbitzu bat dagoen erakundeetan, arlo horretako arduradunen laguntzarekin erabakiko da zein diren bost argitalpen horiek.
4. Behin erakundearen papereko bost argitalpen nagusiak identifikatuta, bost elementu horien hizkuntza ofizialen egoeraren arabera kalkulatu da adierazlea: bost elementuetatik euskara hutsean, ele bietan edo gaztelaniaz argitaratzen direnen ehunekoak. Bost argitalpenei pisu bera emango zaie, zein nahi dela argitalpen bakoitzaren maiztasuna edota orrialde kopurua.
5. Zehaztu egin behar da zein bost argitalpen hartu diren kontuan, hurrengo ebaluazioa egiten denerako erreferentzia gisa.

#### 1.3. a. Erakundearen beraren paperezko argitalpenen hizkuntza ofizialen egoera:

Gaztelania hutsean (%):

Euskara hutsean (%):

Ele bietan (%):

GUZTIRA (%):

#### 1.3. b. Ehunekoak kalkulatzeko aztertutako bost argitalpenak:

- 1.
- 2.
- 3.
- 4.
- 5.



#### 1.4. Hedabideen bitartez zabaldutako iragarkiak eta publizitatea

**Euskarri motak.** Idatzizko eta ikus-entzunezko hedabideetan ageri diren erakundearen iragarkiak, sustapen kanpainak nahiz publizitatea. Sare sozialetan agertu direnak ez dira kontuan hartuko.

**Hizkuntza adierazlea kalkulatzeko prozedura.** Erakundeak iragarkiak eta publizitatea argitaratu ohi dituen **bost bat hedabide** zein diren identifikatuko da, eta ehunekoak kalkulatu dira hedabide horiek erakundearen publizitatea zabaltzeko erabiltzen duten hizkuntza ofizialaren arabera. Ohikoen kontsideratutako hedabide horien irismena izan daiteke udalerrri nahiz lurralde edo herrialde mailakoa. Horretarako ere, kontuan hartu diren bost hedabide nagusiak zerrendatu beharko dira. Bost hedabideei pisu bera emango zaie, zein nahi dela argitalpen bakoitzaren maiztasuna edota orrialde kopurua.

##### 1.4. a. Hedabideen bitartez zabaldutako iragarki eta publizitatearen hizkuntza ofizialen egoera:

Gaztelania hutsean (%):

Euskara hutsean (%):

Ele bietan (%):

GUZTIRA (%):

##### 1.4. b. Ehunekoa kalkulatzeko aztertutako bost hedabideak iragarki eta publizitate kanpainetan:

- 1.
- 2.
- 3.
- 4.
- 5.

#### 1.5. Hedabideen bitartez zabaldutako berriak

**Euskarri motak.** Idatzizko eta ikus-entzunezko hedabideetan ageri diren erakundearen berriak. Sare sozialetan agertu direnak ez dira kontuan hartuko.

**Hizkuntza adierazlea kalkulatzeko prozedura.** Erakundearen berriak argitaratu ohi dituzten **bost bat hedabide** zein diren identifikatuko da, eta ehunekoak kalkulatu dira hedabide horiek erakundearen berriak zabaltzeko erabiltzen duten hizkuntza ofizialaren arabera. Ohikoen kontsideratutako hedabide horien irismena izan daiteke udalerrri nahiz lurralde edo herrialde mailakoa. Horretarako ere, kontuan hartu diren bost hedabide nagusiak zerrendatu beharko dira, eta bostei pisu bera emango zaie.

##### 1.5. a. Hedabideen bitartez zabaldutako berrien hizkuntza ofizialen egoera:

Gaztelania hutsean (%):

Euskara hutsean (%):

Ele bietan (%):

GUZTIRA (%):

##### 1.5. b. Ehunekoa kalkulatzeko aztertutako bost hedabideak:

- 1.
- 2.
- 3.
- 4.
- 5.



### 1.6. Jendaurreko ekitaldiak

Atal honetan neurtuko dira zein hizkuntza ofizialetan eskaintzen dituzten erakundearen ordezkariak (**Ordezkaria: jendaurreko edozein egoeratan erakundea ordezkatzeko duen pertsona, ordezkari politiko zein tekniko**) herritarrekin (hitzaren zentzu zabalean: herritarrekin, bezeroekin, elkarteekin, beste erakundeetako ordezkariekin, etab.) egiten diren ekitaldiak, agerraldiak, prentsaurrekoak, jardunaldiak....

Zein den, erakundeak egiten duen eskaintzan, ahozko eta idatzizko harremanean, euskararen eta beste hizkuntzen presentzia maila.

#### ERANTZUTEKO JARRAIBIDEAK:

Argibideak: Euskarazko jarduna neurtzeko garaian kontuan hartu, erakundeak egindako hizkuntza ofizialen eskaintzaz galdetzen dela (ez hartzaileek ekitaldi, ikastaro, jardunaldi, etab. horietan erabilitako hizkuntza ofizialaz).

Eskatutako ehunekoak zehazteko garaian jarraitu beharreko irizpidea: Jardueran zehar **azaldutako informazio unitateetatik, zenbat azaldu diren euskaraz eta zenbat erdaraz galdetzen da**; azaldutako informazio kopuruaz ari gara, **ez hizkuntza ofizial batean edo bestean hitz egindako denboraz**.

Adibide modura:

- Ekitaldian azaldutako informazio guztia euskaraz eta erdaraz eskaini bada, informazio bera errepikatuz, erantzuna honakoa litzateke:
  - Euskaraz eskainitako informazioaren ehunekoa: % 100
  - Erdaraz eskainitako informazioaren ehunekoa: % 100
- Ekitaldian azaldutako 10 informazio unitateetatik 5 euskaraz eman badira, eta beste 5 erdaraz, informazio bera **bi hizkuntza ofizialetan eman gabe**, denborak behartuta, hala egiten bada hizkuntzen erabilera "orekatua" egin dela esango dugu eta erantzuna honakoa litzateke:
  - Euskaraz eskainitako informazioaren ehunekoa: % 100
  - Erdaraz eskainitako informazioaren ehunekoa: % 100
- Ekitaldian azaldutako 10 informazio unitateetatik, 2 euskaraz eman badira, eta erdaraz 10ak (**euskaraz azaldutakoak, erdaraz ere errepikatuz**), erantzuna honakoa litzateke:
  - Euskaraz eskainitako informazioaren ehunekoa: % 20
  - Erdaraz eskainitako informazioaren ehunekoa: % 100
- Baina, adibidez, azaldutako 10 informazio unitateetatik, euskaraz 2 azaldu badira, eta erdaraz 8 (**informazioa errepikatu gabe**):
  - Euskaraz eskainitako informazioaren ehunekoa: % 20
  - Erdaraz eskainitako informazioaren ehunekoa: % 80
- Aurkezpenerako idatzizko euskarria erabiltzen den kasuan, ahoz euskaraz hitz egiten bada, idatzizkoa erdaraz egon arren, edo alderantziz, idatzizkoa euskaraz azaldu, eta ahozkoa erdaraz egon arren:
  - Euskaraz eskainitako informazioaren ehunekoa: % 100
  - Erdaraz eskainitako informazioaren ehunekoa: % 100



1.6.a Zure erakundearen (Sail, Erakunde Autonomo, Udal, Foru Aldundi...), zenbateko maiztasunez egiten dituzte erakundearen ordezkariak jendaurreko ekitaldiak?

Egunero

Astero

Hamabostean behin

Hilean behin

Hilean behin baino gutxiagotan

Inoiz ez → 1.7 GALDERARA PASATU

1.6.b. Jendaurreko ekitaldietan erakundearen ordezkariak zein hizkuntza ofizialetan eskaintzen dute informazioa? Horietan erakundearen ordezkariak euskaraz emandako/aurkeztutako informazioa neurtuko da, ez ekitaldiak zer hizkuntza ofizialetan gauzatzen diren.

Euskaraz eskainitako informazioaren ehunekoa (%)

Gaztelaniaz eskainitako informazioaren ehunekoa (%)

### 1.7. Webguneak eta tramitazio telematikoak

**Euskarri motak.** Erakundearen webguneko atal finkoak eta dinamikoak, eta Internet bidez herritarrei eskainitako zerbitzu telematikoak.

**Hizkuntza adierazlea kalkulatzeko prozedura.** Jaso behar da euskarri digital horiek zein hizkuntza ofizialetan kontsulta edo erabil daitezkeen, kontuan hartu gabe herritarrek hizkuntza ofizial batean edo bestean egindako erabilpena.

1.7. Webguneen eta tramitazio telematikoaren hizkuntza ofizialen egoera:

Gaztelania hutsean (%):

Euskara hutsean (%):

Ele bietan (%):

GUZTIRA (%):

### 1.8. Sare sozialak eta komunikaziorako aplikazio digitalak

**Euskarri motak.** Erakundearen sare sozialak eta herritarrekin komunikatzeko erakundearen beraren aplikazio telematikoak.

**Hizkuntza adierazlea kalkulatzeko prozedura.** Jaso behar da erakundeak euskarri digital horietan zein hizkuntza ofizial erabiltzen duen, herritarrek hizkuntza ofizial batean edo bestean egindako erabilpena kontuan hartu gabe.

1.8. Sare sozialen eta aplikazioen hizkuntza ofizialen egoera:

Gaztelania hutsean (%):

Euskara hutsean (%):

Ele bietan (%):

GUZTIRA (%):



## 2. HERRITARREKIKO HARREMANAK: IKASTARO ETA JARDUERAK

2.1. Zure erakundeak (sail, erakunde autonomo, udal, foru aldundi...), eskaintzen al ditu herritarrari zuzendutako jarduerarik (erakusketak, kanpainak, bestelako egitasmoak...)? Urtean zenbat eskaintzen ditu, gutxi gorabehera?

Urtean 50 baino gehiago

Urtean 20-50 artean

Urtea 10-20 artean

Urtean 10 baino gutxiago

Ez, inoiz ez → 2.3. GALDERARA PASATU

2.2. Zure erakundeak antolatutako jarduera horietan zein hizkuntza ofizialetan eskaintzen da informazioa? Horietan euskara erabiltzeko eskaintza neurtuko da, ez ekitaldiak zer hizkuntza ofizialetan gauzatzen diren. **(IKUS 1.6 ATALEKO JARRAIBIDEAK)**

Euskaraz eskainitako informazioaren ehunekoa (%)

Gaztelaniaz eskainitako informazioaren ehunekoa (%)

2.3. Zure erakundeak (Sail, Erakunde Autonomo, Udal, Foru Aldundi...), eskaintzen al ditu herritarrari zuzendutako ikastaroak? Urtean zenbat eskaintzen ditu, gutxi gorabehera?

Urtean 50 baino gehiago

Urtean 20-50 artean

Urtean 10-20 artean

Urtean 10 baino gutxiago

Ez, inoiz ez → 3.1 GALDERARA PASATU

2.4. Zure erakundeak antolatutako ikastaro horietatik, zenbat eskaintzen dira euskaraz, eta zenbat gaztelaniaz? Adierazi ehunekotan. Horietan euskara erabiltzeko eskaintza neurtuko da, ez ikastaroak zein hizkuntza ofizialetan gauzatzen diren. **(IKUS 1.6 ATALEKO JARRAIBIDEAK)**

Euskaraz eskainitako ikastaroen ehunekoa (%)

Gaztelaniaz eskainitako ikastaroen ehunekoa (%)



### 3. BARNE HARREMANAK IDATZIZ ETA BALIABIDE INFORMATIKOAK

Administrazioko langileak **erakunde barneko lanetarako idatziz erabilitako hizkuntza ofiziala neurtuko da atal honetan.**

Adibidez, erakunde baten sailen arteko harremanak, sailaren eta sail barruko lurralde-ordezkaritzen artekoak edota sailaren edo erakundearen eta horien menpeko erakunde publikoen artekoak barne harremanak dira. Hirugarren batek administrazioak egin beharko lukeen lana egiten badu, horrekiko harremanak ere barne harremanak direla kontsideratuko da.

#### 3.1. Lanari lotutako hizkuntza paisaia

**Euskarri motak.** Eraikinen barnean, eta langileei zuzendutako hizkuntza paisaia hartu behar da kontuan: errotulazio txikia (armairuak, apalak, karpetak, artxiboak, etab.), horma irudiak, eta antzekoak. Lan arriskuen prebentzioarekin eta ingurumenarekin lotutako errotulazioa. Ekoizpen-makinen errotulazioa, botoiak eta plakak. Errotulazio aldakorra. Kafe-eta janari-makinak, fotokopiagailuak, etab. Sareko edo euskarri informatikoko karpetak eta dokumentuak izendatzeko jarraibideak

**Hizkuntza ofizialen egoeraren ehunekoak kalkulatzeko prozedura.** Adierazi beharko dira lanari lotutako hizkuntza paisaia elementuen hizkuntza ofizialen egoeraren ehunekoak, hau da, gaztelania hutsean, euskara hutsean edo ele bietan daudenen ehunekoak.

#### 3.1. Lanari lotutako hizkuntza paisaiaren hizkuntza ofizialen egoera:

Gaztelania hutsean (%):

Euskara hutsean (%):

Ele bietan (%):

GUZTIRA (%):

#### 3.2. Barne informaziorako edota komunikaziorako tresnak

**Euskarri motak.** Honako elementuak hartu behar dira kontuan: Agiri-guneak: ohar- eta iragarki taulak. Iradokizunen postontzia, intranet-a, berripapera. Posta elektronikoz egindako jakinarazpenak (langile berriak, bajak, etab.) Zirkularrak.

**Hizkuntza ofizialen egoeraren ehunekoak kalkulatzeko prozedura.** Adierazi beharko dira barne informaziorako edota komunikaziorako tresnen hizkuntza ofizialen egoeraren ehunekoak, hau da, gaztelania hutsean, euskara hutsean edo ele bietan daudenen ehunekoak.

#### 3.2.. Komunikaziorako-tresna horietan erakundeak zein hizkuntza ofizial erabiltzen du?

Gaztelania bakarrik (%):

Euskara bakarrik (%):

Ele biak (%):

GUZTIRA (%):

#### 3.3. Erakundeen barne harremanetarako idatziak. Erakunde barruko prozedura administratiboetan sortzen den dokumentazioa barnean geratzen denean, kanporatu barik.

##### 3.3.a. Erakundeak **sistematikoki** jasotzen al du prozedura administratiboak kudeatzeko erabilitako hizkuntza ofiziala?

Bai

Ez → PASATU 4.1. GALDERARA

##### 3.3.b. Erakunde barruko prozedura administratiboetan azken hamabi hilabeteetan erabilitako hizkuntza ofiziala:

Gaztelania hutsean (%):

Euskara hutsean (%):

Ele bietan (%):

GUZTIRA (%):





### 3.4. Programa informatikoen euskarazko bertsioak instalatuta dauden lanpostuen ehunekoak.

3.4. Zenbat dira erakundearen baliabide informatikoak (PCak, ordenagailu eramangarriak, tabletak, eskuko telefonoak...) erabiltzen dituzten lanpostuak? Eta horietatik, zenbaterokoz dute ohiko programa informatikoen (orokorrak eta berariazkoak) euskarazko bertsio instalatuta?

Lanpostu kopurua

3.4.a. Baliabide informatikoak erabiltzen dituzten lanpostuen kopurua:

Lanpostuen %

3.4.b. Euskarazko bertsioak instalatuak dauden lanpostuen %:

## 4. PERTSONEN KUDEAKETA ETA IKASTAROEN KUDEAKETA

### 4.1. Pertsonekin kudeaketa

**Euskarri motak.** Honako elementuak hartu behar dira kontuan:

- **Langile etorri berrientzako protokoloa:** harrera-liburuxka eta ahozko azalpenak.
- **Barne-txostenak:** lanpostuen monografiak, lanpostuen balorazioa, lanpostuen hornidurarako eskuliburua, hezkuntza planak, erretiroak, aseguruak eta antzekoak.
- **Lege-dokumentuak:** kontratuak, lan- edo lan-baldintzen gaineko hitzarmenak, langilearentzako Gizarte Segurantzaren edo Ogasunari dagozkion dokumentuak.
- **Giza Baliabideak kudeatzeko sistemak:** lan-jarduera balioztatze sistema-eredua, aurrez aurreko ebaluazioak, errendimendu-txostenak, gaitasunaren kudeaketa-eredua, gaitasunen mapa, etab.
- Idatzi estandarizatuak, nomina, ordutegi-kontrola, egiaztagirak, telefono-zerrendak, eta antzekoak.
- **Langileak banaka bete beharreko inprimakiak:** lizentzia-baimenak, bidaiak eta otordu-ordainketak, iradokizunak, eta antzekoak.
- **Zabalkunde handiko komunikazioak:** lanpostu-eskaintzak, e-jakinazapenak, lan-ordutegi eta egutegiak, aseguru eta kotizaziozkoak, bilera-deiak, jangelako testuak eta antzekoak.

**Hizkuntza ofizialen egoeraren ehunekoak kalkulatzeko prozedura.** Adierazi behar duzue pertsonen kudeaketarako euskarriaren hizkuntza ofizialen egoeraren ehunekoak, hau da, gaztelania hutsean, euskara hutsean edo ele bietan daudenen ehunekoak.

#### 4.1. Zein hizkuntza ofizial erabiltzen du erakundeak pertsonen kudeaketarako dokumentazioan?

Gaztelania bakarrik (%):

Euskara bakarrik (%):

Ele biak (%):

GUZTIRA (%):

### 4.2. Ikastaroen kudeaketa

**Euskarri motak.** Honako elementuak hartu behar dira kontuan:

- Ikastaro-deialdiak eta izen-ematea
- Asetasun inkestak
- Ikastaroen kudeaketarako aplikazioak
- Ikastaroen kudeaketarako gainerako tresnak

**Hizkuntza ofizialen egoeraren ehunekoak kalkulatzeko prozedura.** Adierazi behar duzue ikastaroen kudeaketarako euskarriaren hizkuntza ofizialen egoeraren ehunekoak, hau da, gaztelania hutsean, euskara hutsean edo ele bietan daudenen ehunekoak.

#### 4.2. Zein hizkuntza ofizial erabiltzen du erakundeak prestakuntzako ikastaroen dokumentazioan?

Gaztelania bakarrik (%):

Euskara bakarrik (%):

Ele biak (%):

GUZTIRA (%):



## 5. KUDEAKETA SISTEMA

### 5.1. Euskararen erabilera planaren jarraipena egiten dute erakundearen zuzendaritza batzordeko kideek?

*Markatu dagokien erantzun aukera guztiak.*

Bai, zehaztutako jarraipen bileretara joaten dira

Bai, adierazleen bilakaerari buruzko hausnarketan parte hartzen dute

Bai, beharrekoak diren hobekuntzei eta neurri zuzentzaileei buruzko hausnarketan parte hartzen dute.

Bai, erabilera planen diseinuan parte hartzen dute

Ez, ez dute egiten → 5.3.GALDERARA PASATU

### 5.2. Zuzendaritzako zenbat kidek parte hartzen dute erabilera planaren jarraipenean?

%25ak baino gutxiagok

%25-%50 artean

%50-%75 artean

%75ak baino gehiagok

### 5.3. Erakundearen kudeaketan euskararen kudeaketa zenbateraino txertatuta dagoela esango zenuke? Hau da, noraino dakite erakundeko langileek hizkuntzen erabilera egokia zaindu behar dela egiten duten edozein kudeaketatan?

*Erakundearen solaskideak ez badu galdera honi erantzuteko nahikoa informaziorik, **zerbitzburuei edo jakin dezakeen arduradunari galdetzea** proposatzen da.*

Bat ere ez

%25 baino gutxiago

%25-%50 artean

%50-%75 artean

%75 baino gehiago

Ed/Ee

### 5.4. Zergatik?

### 5.5. Erakundearen **prozedura administratiboan** erabilitako dokumentuetatik, zenbat dira estandarizatuta daudenak?

Bat bera ere ez

%25a baino gutxiago

%25-%50 artean

%50-%75 artean

%75a baino gehiago

Ed/Ee



5.6. Erakundearen **herritarrekiko harremanetan** erabilitako dokumentuetatik, zenbat dira estandarizatuta daudenak?

Bat bera ere ez

%25a baino gutxiago

%25-%50 artean

%50-%75 artean

%75a baino gehiago

Ed/EE

5.7. Erakundeak ezarriak al ditu Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak?

Bai

Ez

5.8. Dagokion hizkuntza eskakizuna edo altuagoa egiaztatua duten lanpostuen ehunekoak hizkuntza eskakizunari jarraikiz:

%

1. Hizkuntza eskakizuna dagokien lanpostuetatik, 1 HE edo altuagoa egiaztatuta dutenen ehunekoa:

2. Hizkuntza eskakizuna dagokien lanpostuetatik, 2 HE edo altuagoa egiaztatuta dutenen ehunekoa:

3. Hizkuntza eskakizuna dagokien lanpostuetatik, 3 HE edo altuagoa egiaztatuta dutenen ehunekoa:

4. Hizkuntza eskakizuna dagokien lanpostuetatik, egiaztatuta dutenen ehunekoa:

Guztira, dagokion hizkuntza eskakizuna edo altuagoa egiaztatu duten lanpostuen %:

5.9. Erakundeko ordezkari politikoen hizkuntza gaitasuna:

Pertsona kopurua

Erakundeko ordezkari politikoak:

Euskaraz hitz egiteko gai direnak:

Euskaraz ulertzeko gai direnak:



5.10. Zein izan dira, zure ustez, euskararen erabilera normalizatzeko zure erakundeko VI. plangintzaldiko lorpenik garrantzitsuenak? Eta hutsuneak? Eta zein dira, zure ustez, hurrengo plangintzaldirako erronkak ?

5.10.a. Lorpenak:

5.10.b. Hutsuneak:

5.10.c. Erronka berriak:

5.11. Bestelako ohar edo iradokizunik?

**Mila esker zure parte hartzeagatik**

# **Euskararen erabileraren normalizazioa herri erakundeetan**

## **VI. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluazioa 2022**

### **ERAKUNDEAREN LANGILEEI ZUZENDUTAKO GALDETEGIA**

#### **Aurkezpena**

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak arautua du Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua. Dekretu horren arabera, euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu, gauzatu eta ebaluatu behar du entitate bakoitzak.

2022. urtean, VI. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluazioa egitea dagokie.

Ebaluazioa bera egiteko metodologiari dagokionez, V. Plangintzaldiaren Amaierako Ebaluazioan egin bezala, bi datu iturri erabiliko dira: batetik, erakunde bakoitzean euskara planaren ardura duten teknikari edo ordezkariak erakunde mailako informazioa emango dute; bestetik, herri administrazioetako langileek, zuzenean, ohiko ahozko eta idatzizko hizkuntza praktikari buruzkoa. Metodologia honek bide emango du emaitzak V. Plangintzaldiko Amaierako Ebaluaziokoekin alderatzeko.

Esku artean duzun galdetegia, erakundearen langileei zuzendutakoa da, eta bertan, Plangintzaldiko Ebaluazioa egiteko, langileen ahozko eta idatzizko hizkuntza praktikari buruzko adierazleak kalkulatu ahal izateko informazioa jasotzen da.



## HERRITARREKIKO HARREMANA ZERBITZUA EMAN EDOTA PRODUKTUA ESKAINTZEKO ORDUAN

### 1. HERRITARREKIKO HARREMAN IDATZIA

*Herritarrekiko idatzizko komunikazioetan erabilitako hizkuntza ofiziala neurtuko da atal honetan. Erabilitako hizkuntza ofizialen datuak ehunekotan adierazi behar dira, ondorengo hizkuntza ofizialen erabilerak bereizita: gaztelania hutsean, euskara hutsean edo ele bietan (gaztelaniaz eta euskaraz). Hiru ehunekoen baturak 100 eman behar du.*

#### 1.1. Zure lanean herritarrentzako dokumentu edo idazki ofizialik idatzi beharrik izaten al duzu?

Bai

Ez ->2.1 GALDERARA PASATU

#### 1.2. Lehenengo komunikazioak direnean edota herritarrek administrazioarekiko harremanetan zein hizkuntza ofizial erabili nahi duten esplizitatu ez dutenean, zure ardurapeko dokumentu horiek, zuk zeuk kudeatzen dituzunak, zein hizkuntza ofizialetan iristen zaizkie herritarrei? (%)

Gaztelania hutsean (%):

Euskara hutsean (%):

Ele bietan (%):

GUZTIRA (%):

#### 1.3. Herritarrek zure erakundera euskaraz aurkeztutako idatziei, zure ardurapekoak direnean edo zuk zeuk kudeatzen dituzunean, zein hizkuntza ofizialetan erantzuten zaie?

Gaztelania hutsean (%):

Euskara hutsean (%):

Ele bietan (%):

GUZTIRA (%):

### 2. HARRERA GUNEETAN HERRITARREKIKO AHOZKO HARREMANA AURREZ AURRE ETA TELEFONOZ

*Atal honetan **harrera guneetako (erregistroa, leihatilak, Zuzenean Zerbitzua, call centerrak...)** langilearen eta herritarren arteko harreman hizkuntza (aurrez aurrekoa eta telefono bidezkoa) neurtuko da, **ez beste leku batean egiten dena.***

#### 2.1. Erakundearen harrera gunean egiten duzu lan, hau da, herritarrei harrera egitea da zure lanpostuaren eginkizun nagusia?

Bai

Ez ->3.1. GALDERARA PASATU



2.2. Eta harrera gunean, aurrez aurreko harremanik izaten al duzu herritarrekin?

Bai

Ez →2.5. GALDERARA PASATU

2.3. ZUK HERRITARREI:

Herritarrei harrera aurrez aurre egiten diezunean, zein da zuk erabiltzen duzun hizkuntza ofiziala, herritarrek erabili nahi duten hizkuntza ofiziala esplizitatu arte? *Hizkuntza ofizialaren erabilera zerotik hamarrera bitarteko eskalan baloratu behar duzu: zero "beti edo ia beti gaztelania" izanik, eta hamar, "beti edo ia beti euskara".*

**Erabilitako hizkuntza ofiziala (0tik 10erako eskalan)**

Beti edo ia beti gaztelania			Gaztelania euskara baino gehiago		Euskara gaztelania bezainbeste	Euskara gaztelania baino gehiago		Beti edo ia beti euskara		
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

2.4. HERRITARREK ZURI:

Harrera aurrez aurre egiten diezunean, zure lehenengo hitza entzun ondoren, herritarrek zein hizkuntza ofizialetan hitz egiten dizute?

**Erabilitako hizkuntza ofiziala (0tik 10erako eskalan)**

Beti edo ia beti gaztelania			Gaztelania euskara baino gehiago		Euskara gaztelania bezainbeste	Euskara gaztelania baino gehiago		Beti edo ia beti euskara		
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

2.5. Eta harrera gunean, telefono bidezko harremanik izaten duzu herritarrekin?

Bai

Ez →4.1.. GALDERARA PASATU

2.6. ZUK HERRITARREI:

Herritarrei telefonoz harrera egiten diezunean, zein da zuk erabiltzen duzun hizkuntza ofiziala herritarrek erabili nahi duten hizkuntza ofiziala esplizitatu arte? *Hizkuntza ofizialaren erabilera zerotik hamarrera bitarteko eskalan baloratu behar duzu: zero "beti edo ia beti gaztelania" izanik, eta hamar, "beti edo ia beti euskara".*

**Erabilitako hizkuntza ofiziala (0tik 10erako eskalan)**

Beti edo ia beti gaztelania			Gaztelania euskara baino gehiago		Euskara gaztelania bezainbeste	Euskara gaztelania baino gehiago		Beti edo ia beti euskara		
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

2.7. HERRITARREK ZURI:

Harrera telefonoz egiten diezunean, zure lehenengo hitza entzun ondoren, zein hizkuntza ofizialetan hitz egiten dizute herritarrek?

**Erabilitako hizkuntza ofiziala (0tik 10erako eskalan)**

Beti edo ia beti gaztelania			Gaztelania euskara baino gehiago		Euskara gaztelania bezainbeste	Euskara gaztelania baino gehiago		Beti edo ia beti euskara		
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10



**3. HERRITARREKIKO AHOZKO HARREMANA AURREZ AURRE ETA TELEFONOZ.**

*Langile guztiek erantzuteko galderak, **harrera guretakoek izan ezik**. Harrera guneetakoak 4.1. galderara pasatu.*

**3.1. Aurrez aurreko harremanik izaten al duzu herritarrekin?**

Bai

Ez →3.4. GALDERARA PASATU

**3.2. ZUK HERRITARREI:**

Herritarrei aurrez aurreko zerbitzua ematen diezunean, zein hizkuntza ofizial erabiltzen duzu haiek erabili nahi duten hizkuntza ofiziala esplizitatu arte? *Hizkuntza ofizialaren erabilera zerotik hamarrera bitarteko eskalan baloratu behar duzu: zero "beti edo ia beti gaztelania" izanik, eta hamar, "beti edo ia beti euskara".*

**Erabilitako hizkuntza ofiziala (0tik 10erako eskalan)**

Beti edo ia beti gaztelania			Gaztelania euskara baino gehiago		Euskara gaztelania bezainbeste	Euskara gaztelania baino gehiago		Beti edo ia beti euskara		
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

**3.3. HERRITARREK ZURI:**

Herritarrei aurrez aurreko zerbitzua ematen diezunean, zure lehenengo hitza entzun ondoren, zein hizkuntza ofizial erabiltzen dute haiek?

**Erabilitako hizkuntza ofiziala (0tik 10erako eskalan)**

Beti edo ia beti gaztelania			Gaztelania euskara baino gehiago		Euskara gaztelania bezainbeste	Euskara gaztelania baino gehiago		Beti edo ia beti euskara		
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

**3.4. Telefono bidezko harremanik izaten al duzu herritarrekin?**

Bai

Ez →4.1. GALDERARA PASATU

**3.5. ZUK HERRITARREI:**

Herritarrei telefono bidezko zerbitzua ematen diezunean, zein hizkuntza ofizial erabiltzen duzu haiek erabili nahi duten hizkuntza ofiziala esplizitatu arte? *Hizkuntza ofizialaren erabilera zerotik hamarrera bitarteko eskalan baloratu behar duzu: zero "beti edo ia beti gaztelania" izanik, eta hamar, "beti edo ia beti euskara".*

**Erabilitako hizkuntza ofiziala (0tik 10erako eskalan)**

Beti edo ia beti gaztelania			Gaztelania euskara baino gehiago		Euskara gaztelania bezainbeste	Euskara gaztelania baino gehiago		Beti edo ia beti euskara		
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10





3.6. HERRITARREK ZURI:

Herritarrei telefono bidezko zerbitzua ematen diezunean, zure lehenengo hitza entzun ondoren, zein hizkuntza ofizial erabiltzen dute haiek?

**Erabilitako hizkuntza ofiziala (Otik 10erako eskalan)**

Beti edo ia beti gaztelania			Gaztelania euskara baino gehiago		Euskara gaztelania bezainbeste	Euskara gaztelania baino gehiago		Beti edo ia beti euskara		
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

4. EUSKARAZKO ESKAEREI EMANDAKO ERANTZUNAK

*Langile guztiak erantzuteko galderak, harrera guneetakoak barne*

4.1. Herritarrek euskaraz hitz egiten badizu, aurrez aurre zein telefonoz, zuk zer hizkuntza ofizialetan erantzuten diozu? *Hizkuntza ofizialaren erabilera zerotik hamarrera bitarteko eskalan baloratu behar duzu: zero "beti edo ia beti gaztelania" izanik, eta hamar, "beti edo ia beti euskara".*

**Erabilitako hizkuntza ofiziala (Otik 10erako eskalan)**

Beti edo ia beti gaztelania			Gaztelania euskara baino gehiago		Euskara gaztelania bezainbeste	Euskara gaztelania baino gehiago		Beti edo ia beti euskara		
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Herritarrekin ahozko harremanik ez → 5.1. GALDERARA PASATU

4.2. Herritarra euskaraz artatzeko gai ez bazara, zer egiten duzu?

Herritarri eskatzen diot gaztelaniaz hitz egiteko

Herritarri azaltzen diot ez dakidala ondo hitz egiten baina gai naizela ulertzeko, horregatik eskatzen diot euskaraz hitz egiteko nahiz eta nik gaztelaniaz erantzun

Erakundearen protokolo bat dago ezarrita eta euskaraz dakien beste lankide batek artatzen du herritarra

Erakundearen ez dago protokolo bat ezarrita, baina euskaraz dakien beste lankide bati eskatzen diot herritarra artatzeko

Ez dagokio. Gai naiz herritarra euskaraz artatzeko.

Besterik. Zehaztu:



## BARNE HARREMANAK

Administrazioko langileak erakunde barneko lanetarako idatziz zein ahoz erabilitako hizkuntza ofiziala neurtuko da atal honetan

Adibidez, erakunde baten sailen arteko harremanak, sailaren eta sail barruko lurralde-ordezkaritzen artekoak edota sailaren edo erakundearen eta horien menpeko erakunde publikoen artekoak barne harremanak dira. Hirugarren batek administrazioak egin beharko lukeen lana egiten badu, horrekiko harremanak ere barne harremanak direla kontsideratuko da.

### 5. BARNE HARREMANAK IDATZIZ

5.1. Zuk zure lanean izaten al duzu laneko bilerarik?

Bai

Ez → 5.3. GALDERARA PASATU

5.2. Lan bileretako dokumentu idatziak (deialdiak, aktak, txostenak...) zein hizkuntza ofizialetan egoten dira?

Gaztelania hutsean (%):

Euskara hutsean (%):

Ele bietan (%):

GUZTIRA (%):

5.3. Zuk zure lanean idazten al duzu barneko idatzizko komunikazio ofizialik (prozedura administratiboak, bileretarako dokumentuak, bestelako barne komunikazioak...)?

Bai

Ez → 6.1. GALDERARA PASATU

5.4. Erakunde barnerako zure ardurapeko agiri eta dokumentu ofizialak, hots, zuk zeuk kudeatzen dituzunak, (prozedura administratiboak, bileretarako dokumentuak, bestelako barne komunikazioak...) zein hizkuntza ofizialetan tramitatzten edo bideratzen dira?

Gaztelania hutsean (%):

Euskara hutsean (%):

Ele bietan (%):

GUZTIRA (%):

### 6. BARNE HARREMANAK AHOZ

6.1. Lan bilerak zein hizkuntza ofizialetan egiten dituzue?

#### Erabilitako hizkuntza ofiziala (0tik 10erako eskalan)

Beti edo ia beti gaztelania			Gaztelania euskara baino gehiago		Euskara gaztelania bezainbeste	Euskara gaztelania baino gehiago		Beti edo ia beti euskara			Laneko bilerarik ez
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	

6.2. Lankideekin zein hizkuntza ofizialetan hitz egiten duzu aurrez aurre? Lankide kontsideratuko dira erakundeko, bere osotasunean, langile guztiak zein erakundearentzat lan egiten duten hirugarren pertsonak.

#### Erabilitako hizkuntza ofiziala (0tik 10erako eskalan)

Beti edo ia beti gaztelania			Gaztelania euskara baino gehiago		Euskara gaztelania bezainbeste	Euskara gaztelania baino gehiago		Beti edo ia beti euskara		
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10



6.3. Lankideekin zein hizkuntza ofizialetan hitz egiten duzu telefonoz ? Lankide kontsideratuko dira erakundeko, bere osotasunean, langile guztiak zein erakundearentzat lan egiten duten hirugarren pertsonak

**Erabilitako hizkuntza ofiziala (0tik 10erako eskalan)**

Beti edo ia beti gaztelania			Gaztelania euskara baino gehiago		Euskara gaztelania bezainbeste	Euskara gaztelania baino gehiago		Beti edo ia beti euskara		
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

## 7. BALIABIDE INFORMATIKOAK

7.1. Zure lanerako baliabide informatikorik (posta elektronikoa, bilatzaileak, programa eta aplikazio informatikoak...) erabiltzen al duzu?

Bai

Ez → 8.1 GALDERARA PASATU

7.2. Zuk gehien erabiltzen dituzun programa eta aplikazio informatikoak, zenbatetan erabiltzen dituzu euskaraz?

Beti edo ia beti gaztelaniazkoak erabiltzen ditut

Gaztelaniazkoak euskarazkoak baino gehiagotan erabiltzen ditut

Gaztelaniazkoak euskarazkoak bezainbeste erabiltzen ditut

Euskarazkoak gaztelaniazkoak baino gehiagotan erabiltzen ditut

Beti edo ia beti euskarazkoak erabiltzen ditut

## 8. LANEKO PRESTAKUNTZA

8.1. Azken hamabi hilabeteetan, zenbat lan prestakuntza saio edota ikastarotan parte hartu duzu?

Bakar batean ere ez → 9.1. GALDERARA PASATU

Batean

Bi - hiru saio edota ikastarotan

Hirutan baino gehiagotan

8.2. Zuk zein hizkuntza ofizialetan jaso duzu formazioa?

Gaztelania hutsean

Gaztelaniaz gehiago

Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste

Euskaraz gehiago

Euskara hutsean



**KANPO HARREMANAK**

*Batetik, erakundeko langileak beste administrazioekin idatziz zein ahoz erabilitako hizkuntza ofiziala neurtuko da atal honetan. Bestetik, gainontzeko enpresa eta entitate pribatuekiko (finantza-entitateak, produktu eta zerbitzu-hornitzaileak, erakunde kolaboratzaileak...) harremanetan erabiltzen den hizkuntza ofiziala ere neurtuko da kanpo harremanetan.*

**9. ADMINISTRAZIOAREKIKO IDATZIZKO ETA AHOZKO HARREMANAK**

9.1. Zuk idazten al duzu beste herri erakundeetara (udalak, aldundiak, Jaurlaritza...) bidali beharreko dokumentu edo agiririk?

Bai

Ez → 9..3. GALDERARA PASATU

9.2. Zure ardurapeko dokumentuak direnean edo zuk zeuk kudeatzen dituzunean, zein hizkuntza ofizialetan bidaltzen dira beste herri erakundeetara?

Gaztelania hutsean (%):

Euskara hutsean (%):

Ele bietan (%):

GUZTIRA (%):

9.3. Beste herri erakundeetako langileekin (udalak, aldundiak, Jaurlaritza...) ahoz komunikatu beharrik izaten duzu?

Bai

Ez → 10.1. GALDERARA PASATU

9.4. Beste herri erakundeetako langileekin zein hizkuntza ofizial erabiltzen duzu ahozko harremanetan?

**Erabilitako hizkuntza ofiziala (0tik 10erako eskalan)**

Beti edo ia beti gaztelania			Gaztelania euskara baino gehiago		Euskara gaztelania bezainbeste	Euskara gaztelania baino gehiago		Beti edo ia beti euskara		
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

**10. ERAKUNDE PRIBATUEKIKO IDATZIZKO ETA AHOZKO HARREMANAK: FINANTZA-ENTITATEAK, PRODUKTU ETA ZERBITZU-HORNITZAILEAK, ETAB.**

10.1. Zuk idazten al duzu zure erakundeak kontratatutako edo zure erakundearentzat lan egiten duten enpresa edo entitate pribatuei (hornitzaileak, zerbitzu enpresak, finantza erakundeak...) bidali beharreko dokumentu edo agiririk?

Bai

Ez → 10.3. GALDERARA PASATU

10.2. Zure ardurapeko dokumentuak edo zuk zeuk kudeatzen dituzunak, zein hizkuntza ofizialetan bidaltzen dizkiezu enpresei?

Gaztelania hutsean (%):

Euskara hutsean (%):

Ele bietan (%):

GUZTIRA (%):



10.3. Zure erakundeak kontratatutako enpresa edo entitate pribatuetako langileekin (hornitzaileak, zerbitzu enpresak, finantza erakundeak...) ahoz komunikatu beharrik izaten al duzu?

Bai

Ez → 11.1. GALDERARA PASATU

10.4. Zure erakundeak kontratatutako enpresa edo entitate pribatuetako langileekin zein hizkuntza ofizial erabiltzen duzu ahozko harremanetan?

**Erabilitako hizkuntza ofiziala (0tik 10erako eskalan)**

Beti edo ia beti gaztelania			Gaztelania euskara baino gehiago		Euskara gaztelania bezainbeste	Euskara gaztelania baino gehiago		Beti edo ia beti euskara		
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

**11. BESTE ERAKUNDE PRIBATUEKIKO IDATZIZKO ETA AHOZKO HARREMANAK: ALIATUAK, ERAKUNDE KOLABORATZAILEAK, ETAB.**

11.1. Zuk idazten al duzu zure erakundearekin bestelako harremanak dituzten erakunde edo enpresei (erakunde kolaboratzaileak, aliatuak...) bidali beharreko dokumentu edo agiririk?

Bai

Ez → 11.3. GALDERARA PASATU

11.2. Zure ardurapeko dokumentuak direnean edo zuk kudeatzen dituzunean, zein hizkuntza ofizialetan bidaltzen dira komunikazio horiek bestelako erakunde horietara?

Gaztelania hutsean (%):

Euskara hutsean (%):

Ele bietan (%):

GUZTIRA (%):

11.3. Zure erakundearekin harremanak dituzten bestelako erakunde edo enpresetako langileekin (erakunde kolaboratzaile, enpresa aliatuetako langileekin....) ahoz komunikatu beharrik izaten al duzu?

Bai

Ez → 12.1. GALDERARA PASATU

11.4. Zure erakundearekin harremanak dituzten bestelako erakunde edo enpresa horietako langileekin zein hizkuntza ofizial erabiltzen duzu?

**Erabilitako hizkuntza ofiziala (0tik 10erako eskalan)**

Beti edo ia beti gaztelania			Gaztelania euskara baino gehiago		Euskara gaztelania bezainbeste	Euskara gaztelania baino gehiago		Beti edo ia beti euskara		
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10



## KUDEAKETA SISTEMA ETA LANGILEAREN SOSLAIA

### 12. EUSKARA SORTZE HIZKUNTZA (%0-%100)

Atal honetan erakunde barneko zein kanpoko lanetarako idatziz erabilitako hizkuntza ofiziala neurtuko da. Sortze hizkuntza zenbatekoa den kalkulatzeko, adierazi egiten dituzun idazkiak zein hizkuntza ofizialetan egiten dituzun.

Zer hizkuntza ofizialetan sortzen den definitzeko irizpidea honako hau izango da:

1. *Gaztelaniaz: Langileak gaztelaniazko bertsioa soilik sortzen du (bere erantzukizunpekoa da). Euskarazko bertsioa beste batek sortzen du.*
2. *Euskaraz: Langileak euskarazko bertsioa sortzen du (bere erantzukizunpekoa). 8 bertsioa bes*
3. *Ele bietan: Langileak euskarazko bertsioa eta gaztelaniazko bertsioa, biak, sortzen ditu berak (bere erantzukizunpekoak). Horretarako hainbat baliabide erabili ahalko ditu (hiztegiak, itzultzaile neuronala...)*

#### 12.1. Zuk zure lanean idatzi behar izaten al duzu testurik (dokumentuak, inprimakiak, mezu elektronikoak, eta abar)?

Bai

Ez → 13.1. GALDERARA PASATU

#### 12.2. Zuk zure lanean idatzi behar dituzun dokumentuetan, bete behar dituzun inprimaketan, bidali behar dituzun mezu elektronikoetan eta abar, zein da zuk erabiltzen duzun sortze hizkuntza?

Gaztelania hutsean (%):

Euskara hutsean (%):

Ele bietan (%):

GUZTIRA (%):

### 13. HIZKUNTZA OFIZIALEN ERABILERARAKO IRIZPIDEEN EZAGUTZA ETA BETETZE MAILA

#### 13.1. Zenbateraino ezagutzen dituzu zure erakundearen hizkuntza irizpideak?

Asko

Nahikoa

Gutxi

Batere ez → 14.1. GALDERARA PASATU

Erakundeak ez ditu hizkuntza irizpideak ezarrita

→ 14.1. GALDERARA PASATU

#### 13.2. Zuk zure lanean zenbateraino betetzen dituzu zure lanpostuari dagozkion hizkuntza irizpideak?

Asko

Nahikoa

Gutxi

Batere ez



#### 14. ERAKUNDEAN EUSKARAREN ERABILERAK IZAN DUEN BILAKAERARI BURUZKO BALORAZIOA ETA PARTE HARTZEA ERABILERA PLANETAN

14.1. Zein balorazio egiten duzu zure erakundearen euskararen erabilera duen bilakaerari buruz?

- Oso negatiboa
- Negatiboa
- Ez negatibo ez positiboa
- Positiboa
- Oso positiboa

14.2. Zergatik?

- Asko egin delako
- Nahikoa egin delako
- Gutxiegi egin delako
- Gehiegi egin delako
- Ed/Ee

14.3. Honen inguruan besterik aipatu nahi duzu?

